



“KARMENGO AMA” IKASTETXEA
Carmelitas Misioneras Teresianas

Karmengo Ama Ikastetxeko hezkuntza proiektuak 0 eta 2 urte arteko umeen garapen integralerako oinarriak jartzen ditu.

Ikastetxeak, Zornotzako erdigunean kokatuta, kalitatezko hezkuntza bereizitua eskaintzen du lehendabiziko hilabeteetatik.

ZORNOTZA.

Gizartearen etorkizuna gaur egungo umeak badira, **kalitatezko hezkuntza bizitzaren lehendabiziko hilabeteetan hasi behar da.** Karmengo Ama Ikastetxean beharrezko ikasketa integrala eskaintzen den arren, hau da, hartzaindegitik derrigorrezko bigarren hezkuntza arte, DBH,0 eta 2 urte artekoen eskaintza pedagogikoan arreta berezia jartzen da. **Hartzaindegia kalitatezko hezkuntzaren oinarria da.**

Eskolara joaten hastea oso momentu berezia eta sentsiblea da familientzat eta haurrentzat. Umeak ezaguna den errealitate batetik beste errealitate berri batera salto egiten du. Familia giroan bizi eta elkarbizitzetik, ezezaguna den giro batera, eskola girora aldatzeak, haur txikietan estresa eta estutasuna sortu dezake. Euren ingurune soziala handitzen da. Beraien inguruko protagonistak izatetik, talde baten parte izatera pasatzen dira: gelakideen eta eskolaren parte. Horretarako, prozesua atsegina izan dadin, **Karmengo Ama Ikastetxean xehetasunez lan egiten da ikasle eta familientzat trantsizioa ahalik eta positiboena eta aberasgarriena izateko.**

Hezkuntza teknika eta didaktika proposamen zehatzen alboan doa egunerok. **Emaitza positiboak babesten dituzten garapen jarraituko metodologia berritzaileak.** Gaia ez da, iraganean ulertzen zen moduan, hartzaindegi zerbitzua eskaintzea soilik, baizik eta ume txikiak hasieratik heztea. Ikastetxeak, adibidez, ikasleen **Estimulazio Goiztiarrean** interes berezia jartzen du. Hau da, lehen hartzaroko ahalmen eta gaitasunen garapenean. Adimen bitzen dinamikei esker arreta mantentzen ikasten dute eta memoria eta ikasketa lantzen dute burmuina estimulatzeko bitartean. Honetaz aparte, teknika didaktiko anitzak lantzen dira: **Joko heuristikoak**, eguneroko objektuen ehundurak, formak eta





“KARMENGO AMA” IKASTETXEA *Carmelitas Misioneras Teresianas*

koloreak identifikatzeko, **adimen musikalaren garapena** eta **psikomotrizitatea**. Helburua adin goiztiarretik ikasketa aukera anitzak eskaintzea da.

Estimulazio Goiztiarra oso positiboa da adin hauetan. Zero eta bi urte arteko umeak **neurologikoki prest daude ekintzak proposatzen dituzten erronkei aurre egiteko eta gainera zentzumenak inoiz baino biziago dituzte**. “Gelan behatu besterik ez dira behar. Jakin-min handia dute eta momentu oro ikasten jarraitu nahi dute. Beraiek eskatzen digute. Irakasleek harriturik ikusten dugu, sinestezina den abiadura batean, estimulu berrien eraginpean egon behar direla. Jenio batzuk dira”, dio Alaitz Bereziartuak, ikastetxeko bi urteko haurren geletako baten tutorea denak.

Umeak denbora tarte laburretan estimulu ugari erantzuten die eta ondorioz erraz nekatzen da. Egunean zehar askotan hartu behar du atsedena eta horregatik haurrak horrenbeste egiten du lo. Atsedena, lana bezain garrantzitsutzat hartzen dugu Karmengo Ama Ikastetxean eta horregatik egunean zehar erlaxaziorako eta atsedenerako programaturik dauden tarteak aldaketa aukera barik errespetatzen ditugu. Ez dira gutxi.”, gehitzen du Kristina Gonzalezek, Karmengo Ama Ikastetxeko pedagogia buruak.

Gainera Karmengo Ama Ikastetxea ikasleen zein familien errealitate zehatzei moldatzen da. Ikastetxeko **haurtzaindegiaren helburuetako bat, familien lan bizitza haurren eskola bizitzara moldatzea da, beti ere atxikimendu prozesua ahalik naturalena izatea zainduz**. Horregatik, ez da familien erosotasunaz oharkabetzen. Ordu-tegiak malguak dira goizeko zazpiak eta laurdenetik hasita. Posiblea da eskolaraino kotxearekin sartzeko eta umeen aulkitxoak ikastetxean bertan utzi ahal izatea. Abantaila hauei esker lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa errazago egiten da. Bazkariekin berdina gertatzen da. Ikastetxeak sukaldea izateak posible egiten du txikientzako pureak bertan egitea. Bazkari planak ume bakoitzaren beharrei egokituta osatzen dira. Elikadura prozesu osoa ikastetxeko profesionalen esku dago. Honek hazkuntza osasungarria bermatzea baimentzen duelarik.

